

# KARTEL-LEHIAKETAREN OINARRIAK

## ESKER ONEZKO JAIK

### EZAUGARRIAK

**TAMAINA:** Inprimatze errearen tamaina **DIN-A3koa** izango da. Egileak beste neurri batzuekin lan egin dezake, betiere lehen aipatutako proportzionaltasunari eutsita.

**TEKNIKA:** Egite-teknika askea izango da, ordenagailuz egindako diseinu grafikoa barne. Nolanahi ere, aurkeztutako lanak paper edo kartulinaran e1Teproduzituta entregatu beharko dira festetan zehar udal-aretoetan erakusteko.

**NAHITAEZKO TESTUA:** Udale1Tiaren ezkutu heraldikoa ikusgai egon beharko da (udal-bulegoetan entregatuko da) eta bakar-bakarrik ondorengo testua agertuko da:

### OYÓN-OION 2019

### FIESTAS DE ACCIÓN DE GRACIAS

### ESKER ONEZKO JAIK

**DEL 21 AL 26 DE AGOSTO**  
**ABUZTUAREN 21etik 26ra**

**SARIAK:** **400 euroko** helduen sari bat banatuko da. Kartel irabazlea Oyón-Oiongo Udalaren jabetzakoa izango da. Saritu ez diren kartelak beren jabeei bueltatuko zaizkie.

### AURKEZPENA

**MODUA:** Parte-hartzaileek bi gutun-azal itxitan aurkeztuko dituzte euren proposamenak: 1) A gutun-azala. Kartela sartuko da (euskarri zurruna, kartoi-luma edo antzekoa...), eta kartelaren eta gutun-azalaren atzealdean leloa edo izenburua zehaztuko da. 2) B gutun-azala. Egilearen izena, abizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa, NANaren fotokopia eta harremanetarako telefono-zenbakia zehaztuko <lira. Horiekin batera, irudiaren kopia entregatu beharko da jpg edo pdf formatuan (300 dpi-ko e1Tesoluzioa duena), eta euskarri digitalean, pendriven, CDan... Gutun-azal honen atzealdean ere leloa edo izenburua zehatuko da.

**(A eta B gutun-azalen kanpoko zigilatuan kartelaren LELO EDO TITULUA agertu beharko da).**

**KOPURUA:** Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez ere, hiru kartel aurkeztu ahalko ditu.

**EPEA:** Lanak **2019kouztailaren 5ean**, 14:00ak baino lehen, aurkeztu beharko dira, udal-bulegoetan.

*Era berean postaz bidalitako dokumentazioa (Oyón-Oioneko Udala-Kartel Lehiaketa-Plaza Nagusia 5 - P. K.:01320 Oyón-Oion-Araba) udal-bulegoetan egon beharko da **2019ko uztailaren 5ean**. Parte-hartzaileen ardura izango da lanak oinarrietan zehaztutako epean entregatzea. Ez da onartuko jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordutik kanpo jasotzen den dokumentazioa. Dena delakoagatik, ezinbestekoagatik ere bai, lanak epaimahaia elkartu baino lehen udal-bulegoetan jasoko ez balira, lan horiek baztertu egingo lirarteke.*

**HARTU-AGIRIA:** Udal-bulegoetan ziurtagiri bat egingo da parte-hartzailearen izenean, eta hori gabe ezingo da lanik eraman.

## EPAIMAHAIA

**OSAERA:** Epaimahaia enpresa grafikoetako eta argazki-enpresetako teknikariek osatuko dute. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dute.

**AUKERAKETA:** Epaimahaiak bazterketa bidez egingo du aukeraketa, eta botoa sekretua izango da.

**EPAIA:** Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da. Epaimahaiak bertan behera utz dezake lehiaketa gutun-azalak ireki gabe, baldin eta parte-hartzaileen kopurua **sei** baino gutxiagokoa bada. ***Saribanaketa 2019ko uztailaren 14an izango da.***

## JABETZA

**ESKUBIDEAK:** Saritutako kartelen eskubideak, bere osotasunean, Oyón-Oiongo Udalarenak izango dira.

**ERAKUSKETA:** Udalak eskubidea izango **du** aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa bat antolatzeko (sartuak izan ala ez).

**ITZULTZEA:** Saritu ez diren kartelak 2019ko irailaren 1etik 15era bueltatuko dira, egileek hala eskatuz gero.

**INFORMAZIOA:** Edozein motatako informazioa jasotzeko, jarri harremanetan Oyón-Oiongo Udalarekin. Plaza Nagusia 5 P.K.: 01320-Oyón-Oion (Araba). Tel.: 945-622190 / 622192.

**ONARPENA:** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Epaimahaiak erabakita, saria eman gabe utzi ahalko da.